

Pentsu sendagarriari buruzko etorkizuneko araudiaren gaineko akordioa

DESKARGATU PDF

EBko erakundeek akordio bat lortu dute pentsu sendagarriari buruzko araudi-proposamena dela eta. Akordio honek albaitaritza-sendagaiei buruzko araudi berri baten proposamenari buruz hartutako konpromisoari jarraitzen dio, zeinak pakete bat osatzen baitzuen pentsu sendagarrien proposamenarekin batera, bien artean dauden interkonexioak direla eta, bereziki mikrobioen aurkako substantziekin erresistentzien aurkako neurriei dagokienez.

Arau berriek debekatu egingo dute antibiotikoekin medikatutako pentsuak profilaktiko gisa erabiltzea, hau da, prebentzio gisa erabiltzea. Erabilera metafilaktikoa (animalia guztiak tratatzea animalia bakarria dagoenean infektatuta) baimenduta egongo da, soilik infekzioa hedatzeko arriskua handia denean eta beste aukera egokirik ez dagoenean.

Eurodiputatuek azpimarratu dute antibiotikoak ezin direla inola ere erabili animalien errendimendua hobetzeko edo animalien hazkuntza desegoki bat ordezkatzeko. Halaber, nabarmendu dute albaitari batek baino ezingo dituela eman antibiotikoak dituzten pentsu sendagarrien errezetak, azterketa fisiko bat eta diagnostiko egoki bat egin eta gero.

Kutsadura gurutzatuaren muga espezifikoak, zientzian oinarrituta.

Araudia indarrean sartu eta urtebetera, Batzordeak gehieneko maila espezifikoak definitu beharko ditu, zientzian oinarrituta, hainbat substantzia aktiboren kutsadura gurutzatuetarako. Elikagaien Segurtasuneko Europako Agintaritza helburu horrekin kontsultatuko da.

Hurrengo pausoak

Nekazaritza Batzordeak, Parlamentuak eta Kontseiluak araudia onesten dutenen, EBren aldizkari ofizialean argitaratuko da. Hortik hogeit hamar egunera sartuko da indarrean, eta hortik hiru urtera aplikatu ahal izango da.

Medicated feed: Deal on new rules to fight antimicrobial resistance

ELIKA

. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 .

berri@elika.eus

Close

Necessary

Always Enabled

